

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****VITORIA-GASTEIZKO UDALA****OGASUN SAILA****Ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda jendaurrean jartzea  
—2026ko lehen seiuhilekoa—**

Zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrera lokalen kudeaketa, bilketa eta ikuskaritzari buruzko ordenantza orokorraren 26.2. artikulua betetze aldera, hamabost egunez egongo da jendaurrean jarrita ibilgailuak eraikin partikularretan sartzeko pasabideen tasaren errolda —2026ko lehen seiuhilekoa—, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behea—, aztertu eta egokitzat jotzen diren alegazioak egiterik izan dadin.

Erroldan jasotako likidazioen berri denei batera emateko funtzioa betetzen du iragarki honek, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru-arauaren 98.3 artikuluekin ildotik.

Jendaurrean jarrita egongo den erroldan ageri diren likidazioen kontra berraztertzeke erre-kurtsoa aurkeztu ahal izango da, Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariari zuzenduta, ordaintzeko borondatezko epean, eta hura bukatzen den egunaren biharamunetik hilabete igaro bitartean.

Tasa hori ordaintzeko epea 2026ko martxoaren 18tik maiatzaren 18ra artekoa da.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko urtarrilaren 15ean

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**JON ARMENTIA FRUCTUOSO**